

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan gure funtsezko elkarteak zehaztuko ditugu. Horiek gure negozio-eredua funtzionatzea ahalbidetzen dute, hornitzaile eta bazkide sareen bidez.



Lehenik eta behin, gure hornitzaile garrantzitsuena Samsung dela esan beharra dago. Enpresa hau da gure tableta ekoizten duena eta gure produktuaren ekoizpenean lehen urratsa ematen duena. Haiek ahalbidetzen dizkigute guk ondoren programatuko ditugun tabletak.

Gure tabletak ura kontatzeko ezinbestekoa da sentsoare bat izatea, horren bidez ura kontatu eta gure erosleek ur kantitatea ikus dezakete. Sentsoare hori *Alarmas Para Casan* erosiko dugu. Gure ustez, aukera hau da onena. Sentsoareak oso oso ondo funtzionatzen du eta Samsung tabletarekin bikain jarduten du.

Tableta dutxa barruan egongo da, eta arazorik egongo ez dela bermatzeko, pantaila babesteko zorroak beharko ditugu. Horiek Carrefour-en bidez erosiko ditugu. Nahiz eta enpresa honen bidez erosi, Rayen enpresak sortuak dira. Aukera desberdin asko planteatu ondoren hau aukeratu dugu, bezeroen aipamenak eta prezioak kontuan izanik.

Tabletarentzako euskarri bat behar dugunez, Amazoni erosiko diogu. Hamaika arrazoi ditugu Amazonengan konfiantza izateko; izan ere, produktua kalitate onekoa da eta prezioz oso ongi dago. Horrez gain, Amazon oso enpresa fidagarria iruditzen zaigu. Hala ere, produktua ez du Amazonek sortzen, Tendak enpresak baizik.

Guk IKEA multinazionalarekin aliantza egingo dugu, gure produktua mundu mailan erabili ahal izateko. Guk IKEARI gure produktua bidaliko diogu eta gero beraiek saltzen dituzten dutxekin batera gure produktua ezarri dezakete. Honek gure enpresari mundu mailako ikusgarritasuna emango dio eta horrela ez dugu Espainia mailan bakarrik salduko.

Gure produktuaren banaketaz WECARGO arduratuko da. Enpresa hau hautatu dugu, IKEAK erabiltzen duen berbera delako. Beraz, guk IKEAREkin aliantza bat dugula kontuan izanik, aukeraketa onena dela iruditzen zaigu.

Lan egiteko lokal bat behar dugu. UGGASA enpresak gu bezalako enpresa hasiberrientzako lokalak eskaintzen dituzte. UGGASA aukeratu dugu Garapen Sozioekonomikorako Agentzia bat delako eta gure eskualdearentzat (Urola Garaia)

egiten duelako lan. Beraz, eskaintzen dituen lokaletako bat alokatuko dugu, ofizina eta almazena edukitzeko. Lokalean ezarriko ditugun altzariak IKEAn erositakoak izango dira.

Azkenik, enpresa batek arrakasta izan dezan, beharrezkoa da eskaintzen den produktua jakitera ematea. Horretarako, hainbat enpresa kontratatu daitezke lan hori egiteaz arduratuko direnak. Hala ere, gure kasuan, guk geuk publizitatuko dugu gure produktua sare sozialen bidez. Tik Tok eta Instagram erabiliko ditugu hain zuzen ere. Enpresako kideok trebetasun handia dugu app hauek kudeatzen. Hori dela eta, gu bakarrik arduratuko gara gure produktuari buruzko iragarkiak egiteaz.